

## BIZKAIKO ERREPIDEEN MAPA BERRIA/ NUEVO MAPA DE CARRETERAS DE BIZKAIA

*Bilbo, 1998-VII-15*  
*Mikel Gorrotxategi, Nieto,*  
*Onomastika batzordeko idazkaria*

Gaur hemen aurkezten den Bizkaiko Errepideen mapa berria Erakunde biren arteko elkarlanaren emaitza da: Bizkaiko Foru Aldundia, maparen egilea eta Euskaltzaindia, onomastika alorrean aholku emalea dena, eta alde horretatik aipagarria eta aintzindaria. Arrazoa argia da Aldundiak baitu legez errepideen ardura eta Akademiak onomastikarena, hau da izenen normalizazioa.

Normalizatze lan hau ez da edonola eta irizpiderik gabe egiten den zerbait, arau linguistiko zehatzak segituz eta legea betez gauzatzen den lana baizik. Legea, kasu honetan Euskararen Legearen 10. Artikulua. Irizpideak ez dira lan honetarako bereziki paratu, amankomuneko irizpideak Euskal Herri osorako baliogarriak baitira, Nafarroan zein Bizkaian erabili izan direnak, tokian tokiko berezitasueni so eginez. Arau zehatzetan sartu gabe ere, hainbat puntu azpimarratu behar dugula uste dut.

Lehenengo irizpidea jatorrizko izenak jatorrizko hizkuntzaren idazkeraz ematea dugu (euskaraz euskarazkoak, eta gaztelaniaz gaztelaniazkoak) nahiz eta zalantzazkoak ere badiren. Irizpide honek hiritarren bizitza errazteaz gain hizkuntzei bere duintasuna ematen die, inolako funtzionaltasunik ez duten bikote zentzugabeak saihestu, hori bailitzateke kasu guztietan izen biak eman beharra, izan ere *Aldeakueba* euskal idazkeraz ematea gaitzesgarria bada maila berean dago *Ametzola* zeta hutsez (*Amezola*) ematea; gogora dezagun *Ametzola* dela ofiziala, nahiz eta batzuek jakin ez.

Hori dela eta *Artatza* eta ez *Artaza* jarri da erabat gardena den izen hau finkatzean hori baita bertako jaiotako euskaldunek darabiltena. *Artaza* gaztelaniazko ahoskera dugu z-rekin gaztelaniak aspaldi galdu baitzuen soinu afrikaria. Gogoratu, bestaldetik, hori dela Leioako Udalak onartutako izen ofizial bakarra, Onomastika Batzordeari eskatutako ikerketa hobetsiz. Arrazoi beragatik *Cadagua*, ez hain aspaldi *Salcedon* ere deitu izan zen ibaia, hobetsi zen eta ez azken urteotan zabaldutako *Kadagua*, erabat erromantzezkoa den izen honentzat desegokia baita.

Hala ere honek ez du inondik inora egungo ahozko laburdurak onatzen direnik esan nahi, *Arguia*, *Arrigorriaga*-ren orde, esatareko. Era berean de-

klinatzean sortutako *-gane* moduko amaierak, bestaldetik tradizio laburrekoak direnak, bere forma osotara eraman dira, horren adibidea *Autzagana* dugularik.

Izen osoak onartuko dira, baina ez da etimologikerietan ibili, izenak zuzendu direnean ongi frogatutako datuen gainean lan egin da, eta puntu honetan aipagarria da *Arrontegi*. Bere garaian Herri Aginteez ebazpena eskatu zutenean batzordeak ez zuen gaur egun beste daturik eta euskaraz hasieran *r-rik* ez dela onartzen jakin arren, ez zuen etimologikerietan sartu nahi izan (eta egokiena *Arrontegi* irudi arren) eta itxaron zuen datu gehiago izan arte. Geroago egindako ikerketek frogatu dute *Arrontegi* zela izena eta ondorioz hori izan da arestian proposatu duena.

Etengabeko ikerketa honen beste adibide bat *Atxuriaga/La Aceña* dugu. Bere garaian Euskaltzaindiak ez zuen itzulpen edo moldaketarik egin eta ez zuela euskal kiderik aitortu zuen. Geroago egindako ikerketek ongi frogatu zuten bertako izen jatorra *Atxuriaga* zela eta hori da bertan egin zen parkea izendatzeko hobetsi zena.

Azkenik bada bere garrantziagatik aipatu behar den izen bat, Bizkaiko ibai handiarena, eta zehatzago Basauritik Abrarainoko tartearena. Gauza ezaguna da azken mende honetan *Nervión* izena eta geroago horren euskal izena *Nerbioi* erabili dela, baina hala eta guztiz ere izen jatorra eta etimologia aldetik inolako zalantzarik ematen ez duena, eta Bilbo sortu zenetik ezaguna, erabat baztertu gabe *Ibaizabal* da. Aldaketa honen historia laburra da eta joan den mendean egindako geografia hiztegieta ikus daiteke, bertan nahiz eta izen jatorra *Ibaizabal* zela aitortu ez zuten inolako lotsarik izena aldatzeko eta Real Academia de la Historiarenean, esaterako, honako hau irakur daiteke: *Nerva, río el más considerable del señorío llamado también por algunos Nervión y más generalmente Ibaizabal*.

\* \* \*

He de resaltar brevemente que este Mapa de carreteras es el fruto de la colaboración de dos instituciones: la DFB y la RALV. Es un proyecto pionero y un ejemplo de la labor a seguir, en el que la institución foral recabó la colaboración de la Academia como órgano consultivo en la normalización de topónimos.

Esta normalización, en cuyo detalle no entraremos pues sería largo y tedioso, se fundamenta en la legislación de la Comunidad Autónoma y los criterios desarrollados por la Comisión, que respetando las particularidades locales, son válidos para todo Euskal Herria.

El primero y fundamental criterio es el respeto a la grafía propia de la lengua del topónimo (en euskera los euskéricos y en castellano los romances), aunque en algunos casos puedan surgir dudas. Este criterio, en mi opinión sín-

toma de sentido común, es de gran utilidad para el ciudadano, al evitar costosas y molestas dobles denominaciones, puesto que si sería reprobable una grafía como *Aldeakueba*, también lo debe ser *Amézola* por *Ametzola*, grafía oficial pese a que algunos no se deben de haber enterado.

Por esta misma razón se ha oficializado *Artatza*, pues esta forma es la que utilizan los vascófonos de la zona para un topónimo, diáfano, en el que *Artaza* sería la grafía castellana. Por otra parte, hay que recordar que dicha forma fue la oficializada por el ayuntamiento de Leioa de acuerdo con el informe sollicitado a la RALV. Por esto mismo es *Cadagua* y no *Kadagua*, como se ha difundido en los últimos años la grafía apropiada para dicho río, que no hay que olvidar se llamó también *Salcedón*.

De todas formas, esto no significa que se dé preferencia a la forma oral. Tal proceder nos llevaría a formas como *Arguia*, en lugar de *Arrigorriaga*. Del mismo modo, las terminaciones acabadas en *-gane*, producto de la declinación vasca y en general de escasa tradición, han sido repuestos a su forma correcta; tal sería el caso de *Autzagana*.

Pero la normalización no es un trabajo de etimología, y para la realización de propuestas la comisión no entra en ese campo, realizando reconstrucciones, sino sobre datos fehacientes. De esta forma, cuando la institución pertinente solicitó, hace unos cuantos años, el dictamen sobre *Rontegi*, pese a ser obvia la incorrección de este nombre puesto que en euskera no existen palabras empezadas por *r-*, la comisión no quiso realizar juicios aventurados. Posteriores estudios han demostrado que *Arrontegi* es la forma correcta y como tal se informó a las instituciones correspondientes, fundamentalmente la Diputación de Bizkaia, que lógicamente ha procedido a su oficialización.

Otro ejemplo de este trabajo de investigación es *Atxuriaga/La Aceña*. En su momento Euskaltzaindia no realizó ningún intento de traducir o adaptar un nombre tan diáfano y lo catalogó como carente de equivalente euskérico conocido. Afortunadamente los estudios actuales nos han descubierto su nombre original, que no es otro que *Atxuriaga*, oficializado hace unos años para el parque allí creado.

Finalmente, hay que mencionar un nombre que por su repercusión en Bizkaia tiene especial relevancia, el de su principal río, y más concretamente el tramo comprendido entre Basauri y el Abra. Es conocido que en los últimos años ha sido conocido como *Nervión*, en euskera *Nerbioi*, aunque su nombre original, registrado ya en la fundación de la villa de Bilbao, *Ibaizabal*, no ha desaparecido. La historia de este cambio no se puede ignorar y así los diccionarios geográficos del siglo pasado, a pesar de reconocer que el nombre de dicho río es *Ibaizabal*, no dudan en cambiárselo por el de *Nervión*. Un ejemplo lo tenemos en el Diccionario de la Real Academia de la Historia (1802): *Nerva, río el más considerable del señorío llamado también por algunos Nervión y más generalmente Ibaizabal*.